

🌸 Hitz eta Pitz 🌸

Eskola Liburutegien gaur egungo egoera



Partaideak eta haien eskola liburutegien datuak:

- **ARANTXA BALTZATEGI (Durana Ikastola)**

- Irakasle kopurua: 125
- Ikasle kopurua: 1.300
- Liburutegi kopurua: 3 (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, D.B.H.).
- Liburutegia sortua: 1999an.
- Urteak postu horretan: 7 urte.
- M²: 60 m² inguru.

- **IXIAR ETXEBARRIA (Langile Ikastola - Hernani)**

- Irakasle kopurua: 87
- Ikasle kopurua: 857
- Liburutegi kopurua: Haur Hezkuntza (gela barruan), L.H. eta D.B.H.
- Liburutegia sortua: 1996an.
- Urteak postu horretan: 2 urte (egun jubilatua).
- M²: 50m² inguru.

- **CHARO URRUTIA (Kurtzebarri Ikastola - Aretxabaleta)**

- Irakasle kopurua: 34
- Ikasle kopurua: 320
- Liburutegi kopurua: 3 (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.).
- Liburutegia sortua: 1991n.
- Urteak postu horretan: 11 urte.
- M²: 80m² inguru.



Behinola: Zer-nolakoak dira zuen lan baldintzak? Erabat liberatuak al zaudete? Irakaskuntza-gela eta liburutegiko ardura uztartu behar izaten al duzue?

Arantxa: Bai, ni liberatua nago, baina gaztelaniazko klaseak ere eman behar ditut. Astean 18 saio ematen ditut liburutegian (Lehen Hezkuntzan 18 talde daude-eta); gaztelera (ematen) 3 saio; 2 saio berritzegunean, proiektu bat aurrera atera nahian eta, azkenik, beste 2 saio prestaketan; osotara, 25 saio.

Ixiar: Guk liburutegian ematen ditugun orduetatik tarte handiena erabiltzen dugu mailegu kontrola eramateko, eta modu berean hurrei laguntzen diegu kontsulta liburuak erabiltzen.

Gainerako ekintzak tutore bakoitzak bere gelan bideratzen ditu. Gela bakoitzak badu bere liburutegi txokoa, eta hortik abiatzen dira

aktibitate guztiak, horiek literatura tailerren daude.

Gero, 3. mailatik aurrera modu jakin batean liburutegira joaten dira liburuak mailegatzera eta irakurtzera. 1. eta 2. mailakoek aukera dute liburutegira nahi dutenean joateko, baina ez dago hain zehaztua, beharraren arabera joaten dira.

Charo: Nik 12 ordu ematen ditut astean liburutegi lanetan. Baina gu liburutegian «liberatu» gisan aritzeko, aldeztu aurretik klaustroari proiektu bat aurkeztu behar izan genion, helburu jakin batzuekin.

Horrek inplikatzeko du liburutegitik hainbat gauza bideratu beharra, baina inoiz ez guk bakarrik. Zuzendaritza taldearekin, zentroko pedagogia taldearekin eta zikloko arduradunekin batera egiten dugu lan liburutegiko beste arduradunak eta biok.

Hortaz, eskolari eskaintzen diogu dokumentazio eta liburu aukera ahalik eta zabalena. Modu berean, irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak dinamizatu behar ditugu denen artean; hau da, irakasle guztiak inplikaturik daude prozesu horretan.

Guk liburutegia eskolako kulturagunerik garrantzitsuentzat hartzen dugu eta saiatzen gara horrela izan dadin; horretarako, gurasoen partaidetza eskatzen dugu. Gure ardura da hori guztia koordinatzea eta baita zein liburu sartuko diren aukeratzea ere, noski; baina, berriz diot, ez dugu bakarrik egiten, beste irakasleen proposamenak koordinatzen eta kudeatzen ditugu liburutegian.

Behinola: Charo, zuk aipatu duzu bi arduradun zaretela. Nola koordinatzen zarete? Nola banatzen duzue lana?

Charo: Nik 5. eta 6. mailako bi gela daramatzat eta besteak 5. eta 6. beste bi gelak. Orduan, bien artean koordinatzen gara zein dinamika mota eraman nahi dugun zehazteko. Modu berean tutoreekin koordinatzen gara beraien

kezkak eta gogoak betetze aldera. Azken finean gure nahia zera da: bai irakasleek bai ikasleek gune egoki bat izatea, ahalik eta liburu anitzekin hornitua.

Nik zerbait positiboa ikusten dudana eta, nire ustez, lortu dudana eta, gainera, gustatuko litzaidakeena mantentzea eskolako partaidetza izan da (guraso, ikasle zein irakasle), hots, orain dugun sarea mantentzea.

Bestalde, tailerretan egiten den koordinazioa ere gure ardura da. Gero, irakurketa dinamikak zuzentzen ditugu; hortaz, tutoreak ere badu zer eginik eta zer esanik prozesu honetan.

Behinola: Lehen aipatu dituzun tailerretan ze aktibitate mota egiten dituzue?

Arantxa: Nik liburutegian egiten dudana ekintza nagusia irakurtzea da, eta beraiek (umeek) entzuten dute. Batzuetan, entzuten duten bitartean, margotu ere egiten dute; hauxe da askotan egiten dudana aktibitatea. Liburutegian saiatzen naiz euskarazko testuak aurkitzen, baina ez da ezer gertatzen gaztelaniazkoa bada noizbait. Gaztelaniazko klasetan antzekoa egiten dut, baina erdarako testuekin. Klasea hasi baino lehenago 10 minutuz irakurtzen ematen dut. 3. mailako tutorearekin koordinatzen naiz gaztelaniazko klaseak emateko mementoan eta hor tarte batzuk literaturari eskaintzen dizkiogu

Ixiar: Adibidez, 5. mailakoek idatzi zituzten ipuin batzuk eta 1. mailakoei kontatu zizkieten, oso esperientzia polita izan zen. Baina hori guztia ez da liburutegitik bultzatzen. Memento honetan, lehen esan bezala, mailegu kontrola eta kontsultarako laguntza eskaintzea litzateke gehien bat gure betebeharra.

Arantxa: Gurean, berriz, irakurzaletasuna nire esku utzi dute irakasleek. Beraiek irakurketa lantzen dute, baina zaletasunaren ardura niregan utzi dute. Hau da, irakurketa «mekanika» gelan lantzen dute.

Charo: Nik hasieratik planteatu nuen zaletasuna guztiok bultzatu behar genuela, guztion esku zegoela irakurzaletasuna. Heziketa fisikoko irakasleari akaso ez diot hori eskatuko, nahikoa izan dezake bere klaseekin, baina gainerakoei, bai. Hizkuntzako irakasleak edo plastikako tailerretako irakasleak landu dezakete irakurzaletasuna, zalantzarik gabe.

Behinola: Nola ikusten duzue zuek zuen postua (liburuzaina) definitzeko mementoan dagoen planifikazioa?

Arantxa: Guztia ratioaren arabera dago. Ni izatez, tutorea naiz; baina ratioa dela-eta, gure zentroan ikasle kopurua handia delako, irakasle bat gehiago dugu. Dena dela suposatzen da pertsona hori languntzarako dela. Baina klaustroan interesgarria ikusi zen pertsona horrek liburutegiko ardura hartzea eta, orduan, proiektu bat aurkeztu nuen, klaustroak eta eskola



kontseiluak onartu zuten... eta hor nabil. Baina ratioa aldatuko balitz ni berriz ere tutore lanetara bueltatuko nintzateke eta liburutegia arduradun finko gabe geratuko litzateke; alde horretatik liberatua nago, bestela...

Charo: Niri gustatuko litzaidake jakitea Euskal Herrian ea ba ote dagoen eskola bakar bat ere liburutegiko funtzioetarako pertsona bat liberatuta duena; ratioaren gainera, jakina.

Arantxa: Ez, ez dut uste. Hori ez dago kontenplatuta inon. Alde horretatik sekulako hutsunea dago.

Ixiar: Pertsona finko bat izanez gero, postu horretan bestelako planteamenduak egin daitezke liburutegiko funtzionamenduari begira.

Behinola: Materiala erosteko orduan, nola egiten duzue?

Ixiar: Gure kasuan, adibidez, tailerretik eskatzen duten materiala zuzenean erosten da. Beste gauza bat da eskaintza bereziak daudenean, horiek kontsentsuatu behar dira batzordean. Beste alde batetik, material berriak –nobedadeak– liburutegiko arduradunak aukeratzen ditu.

Arantxa: Gurean aurrekontu dexentea dugu liburutegia ornitzeko, Haur Hezkuntzako liburutegiak zerbait gutxiago du, baina beste biek nahikoa dute. Gero, ni naiz liburutegia ornitzeko arduraduna –Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako arduraduna beste bat da– eta nik erabakitzen dut zer sartuko den eta zer ez. Bestalde, Araban bada kanpaina bat liburuak birziklatzeko, orduan kanpaina hori bukatzen denean soberan geratu den dirua banatzen dute eta hori entziklopediak –beno, behin erosi nuen bat– edo komikiak erosteko erabiltzen dut. Bestela, diru hori erabili ohi dut aurretik oso egoera kaxkarrean ditugun liburuak berrerosketo eta ale zaharrak botatzeko.

Charo: Gurean ziklo bakoitzak ikusi behar du zein kontsulta liburu falta edo behar diren,

eta guri eskatuko digute eskaera hori kudea dezagun. Eskaera diru handikoa bada Batzorde Ekonomikotik pasatu behar da, baina kantitatea handiegia ez bada guk erabakitzen dugu erosi ala ez.

Nobedadei dagokionez, nik esan behar dut oso baliogarria izan zaidala Eskoriatzako mintegian parte hartu izana. Bertara duela 14 urte joaten ari naiz. Eskolan beste arduradunak edo nik irakurritako liburuak bakarrik sartuko dira edo, behinik behin, ezagutzen duguna... ez dira nobedadeak ezagutu gabe sartuko. Gure erosketak ez dira izugarritzkoak, izan ere «fondo» oso ongi mantendua baitago, baina beharrezkoa dena erosten da.

Behinola: Multimedia produktuen erosketaz arduratzen al zarete?

Charo: Gure eskolan hori guztia informatikako irakasleak eramaten du.

Ixiar: Gure kasuan, berriz, liburutegikoek erostea erabaki genuen.

Arantxa: Guk multimedian hiztegi entziklopedikoak badira eros ditzakegu, bestela tutoreek dute erosteko ardura hori. Noizean behin pelikularen bat ikusten dugu liburutegian, orduan oso tarteka filmen bat edo beste erosten ditut, baina normalean ez.

Behinola: Orduan zuen liburutegiak ez dira mediatekak, ez?

Arantxa: Ez, gurea liburutegia bakarrik dela esan dezaket. Halere, aldizkariak egon badira, egunkariak badaude –Mantangorri–, Ipurbeltz... dagoen aldizkari gutxi horiek baditugu. Umeek egiten dituzten lanek ere izaten dute toki bat liburutegian. Mediateka izan dadin testu liburuak, filmak, liburuak, CD-ak... katalogatu beharko genituzke, eta, ez, hori ez dugu guk egiten.

Charo: Gurean irakasleek badute txoko bat bere materialekin –zehir lerroak...–, gero



umeez egindako lanek ere badute gune bat, baina CD-ak edo horrelako gauzak ez daude, ez gara horretara iristen; horretaz informatikako irakaslea arduratzen da. Berez egon beharko litzateke horrelakorik, baina... mapak-eta liburutegian daude eta guk kontrolatzen ditugu, nolabait inpresoa den guztia bertan dago eta formato digitalak informatika gelan daude.

Behinola: Gaiaz aldatuz, zein da zuen liburutegien ordutegia?

Arantxa: Eskola irekitzen den unetik itxi artekoa da liburutegiko ordutegia, eguerdiko orduak barne. Hori bai, ni bazkaltzen nagoen bitartean, liburutegia itxita dago. Gero, jolas orduetan ere irekita dago, baina kafetxo bat hartzera baldin banoa, edo fotokopiak egitera

banoa, 6. mailakoak geratzen dira arduradun, eta maileguak egiten dituzte. Beraz, gure eskolako ordutegia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:30ak arte da. Kurtsoaren hasieran boluntarioak eskatzen ditut jolasorduetan maileguak egiteko eta beti dago norbait horretarako prest. Gero, eguerditan ni nago beti bertan.

Ixiar: Gure kasuan oso ezberdina da. Ni egon nintzenean ordutegi bat zegoen, gainerako orduetan tutore bezala aritzen nintzelako. Orduan, talde bakoitzak bazuen bere ordutegia. Eguerdian ez da irekia egoten.

Charo: Talde bakoitzak ordutegi bat du eta hori errespetatzen da beti. Horrez gain liburutegia irekita dago eskola orduetan; jantokiko orduetan irekita egoten da, baina ez da inor joaten.

Jolasaldiak liburuak aldatzeko erabiltzen dira soilik, maileguak egiteko, alegia. Gero, gurean, liburutegiak maileguak egiten dizkie 3. eta 4. mailakoei eta bertatik bideratzen dira etxerako maileguak. Hortaz, etxerako mailegu zuzena 5. eta 6. mailakoek egiten ahal dute. Gainerakoa geletatik dinamizatzen da.

Behinola: Zenbatero pasatzen dira haurrak liburutegitik?

Arantxa: Gure kasuan, 18 gela daude eta 18 saio egiten ditut, gela bakoitzeko bat.

Ixiar: Gurean ere berdin, talde bakoitzak badu bere ordutegia. Baina irekia dago talde batek materiala behar badu, har dezan.

Charo: Gurean kurtso bakoitzarentzat ziurtatuta dago ordu bat astean; eta 4., 5. eta 6. mailakoek izaten dute bigarren ordu bat tutorearekin, kontsultak egiteko edo bestelako ariketak egin behar badituzte.

Behinola: Liburutegia antolatzeko garaian nolabaiteko laguntza jaso al duzue irizpideen aldetik?

Arantxa: Ni hasieran bakarrik sartu nintzen honetan. ABYES programarekin hasi nintzen eta, egia esan, desesperatu egin nintzen, egindako lana ezabaten baizitzaidan. Orain ez, orain ongi moldatzen naiz. Gero, katalogatzeko «*Clasificación Decimal Universal*» deritzona erabiltzen dut. Baina hori nik erabaki dut, ni iritsi baino lehen beste sailkapen mota batzuk ziren, koloreetako pegatinekin...

Ixiar: Guk «C.D.U.» erabiltzen dugu baina ABYES-ik ez. Gero Hernaniko Liburutegi Publikotik laguntza handia jaso genuen liburutegia antolatzeko garaian.

Charo: Ni hasi nintzenean ez zegoen ABYES-ik. Liburutegian umeen txokoa dugu, bertan ezagupen alorreko aleak ditugu, horiek sailkatzeko C.D.U. erabiltzen dugu. Gero, literatura txokoa,

bi hizkuntzak elkarrekin daude eta generoka bananduak daude liburuak. Eleberririk-eta egileka ditugu sailkaturik, alfabetikoki.

Gero ABYES agertu zenean erabiltzen hasi ginen. Mailegua egiteko bakoitzak badu bere karneta eta zenbakia, eta liburu bakoitzak bere fitxa du. Modu horretan egiten dugu mailegua, halere mailegua egiteko ez dugu ABYES-ik erabiltzen.

Arantxa: Gurean ABYES-ek egiten duen karneta erabiltzen dugu eta lehenengo mailatik 6. mailara zenbaki berdina izaten dute.

Nik 2 txoko dauzkat, alde batetik ezagupen arloko txokoa eta beste batean literatura. Alde batean gaztelaraz eta beste batean euskaraz. Nik bildumaka sailkatua daukat.

Charo: Nik irizpide hori lehenengo egunetik baztertu nuen, ez bainago ados. Ez dut uste bildumaka sailkatzeak aniztasuna bultzatzen duenik. Horregatik egileka egiten dugu.

Arantxa: Bai, baina gure eskolan 1. mailatik hasten dira mailegatzen eta hori bada modu bat haurrak liburutegian kokatzeko.

Behinola: Zein hizkuntzak du tokia zuen liburutegietan?

Arantxa: Guk euskara, gaztelera eta ingelesa dugu. Baina nik ezin diet hurrei lagundu ingelesko liburuak aukeratzeko, ez baititut ezagutzen; eta, agian, komenigarria litzateke ingelesko liburuak ingelesko gelan edukitzea, eta bertatik bideratzea mailegua.

Charo: Guk horrela daukagu antolatua.

Ixiar: Guk ere bai, ingelesko liburuak ingelesko gelan ditugu eta ingelesko irakasleak bideratzen du.

Behinola: Nola bideratzen dituzue maileguak?

Arantxa: Nik mailegatzekoan ikasleei askatasun erabatekoa ematen diet beraiek aukera dezaten nahi dutena, nagusiek asko jotzen dute



erdarara. Hori bai, mailegua librea da, ez daude derrigortuak, ez daude behartuak.

Charo: Guk azpijoku bat egiten dugu. 1., 2. eta 3. mailakoek maileguetan euskarazko liburuak ematen dituzte, eta gero 4., 5. eta 6. mailetan iradokitzen zaie hizkuntza txandaka dezaten, euskaraz eta erdaraz irakur dezaten.

Ixiar: Gurean hori guztia ez da kontrolatzen. Badakigu zein liburu eramaten duten, noski! Apuntatuta geratzen da, baina tutoreen lana da hizkuntza bat edo bestea bultzatzea.

Charo: Nik uste dut irakurzaletasuna benetan bultzatu nahi baldin badugu umeari utzi behar zaiola berak nahi duen liburua eramanez. Gero hizkuntza batean edo bestean irakurtzeko arazoak baditu, bada eskola barruan landu beharreko gauza da, hori ez da etxean konpondu

behar. Eskoletan zaletasuna bultzatu behar dugu eta horretarako askatasuna bermatu behar dugu.

Arantxa: Bai, garbi dago. Gurean ez daude behartuak etxera libururik eramateko. Nik badakit zeinek eramaten duen eta zeinek ez. Batzuetan engainatzen ditut: «Ez dut denborarik liburu berri hau irakurtzeko. Egingo didazu faborea, irakurriko duzu, eta gero zer iruditzen zaizun esango didazu?».

Charo: Gu astero elkartzeko gara ikasleekin eta hitz egiten dugu irakurritakoaren gainean. Ariketa hau oso motibagarria da zenbaituentzat liburu bat edo beste hartzeko orduan.

Arantxa: Haurrek mailegua egiten duten mementoan saiatzen naiz jakiten irakurri berri duten liburuaren iritzia. Beraiekin minutu pare

bat erabiltzen dut liburua komentatzeko. 5. eta 6. gelakoek badute beraien geletan pegatina berdea eta gorria jartzeko aukera gustukoa izan duten edo ez jakinarazteko.

3. eta 4. mailakoek agenda bat dute, non jasotzen dute irakurri behar duten liburuaren datoak eta iritzia, hori liburutegian egiten da.

Charo: Guk ordu erdi bat ematen dugu astero liburuak komentatzen, ondoren maileguak egiten ditugu di-da batean eta gero irakurtzen hasten gara.

Ixiar: Gurean idazle batek etorri behar baldin badu bada geletatik zenbait jarduera bideratzen dira.

Behinola: Zein liburu sumatzen duzue faltan?

Arantxa: Nik kontsulta-liburuak sumatzen ditut faltan. Hutsune handia dago arlo horretan. Dauden gehienak itzulpenak dira eta euskaraz sortuak oso gutxi. Gauza bera entziklopediatan; adibidez, 10 urteko haur batentzat Lur entziklopedia gehiegi da, ez du ulertzen.

Gero, literaturan, gurean 9.500 liburu ditugu, hortik %65 erderaz da, hortaz, %35 euskaraz, baina azken urteotan euskaraz 6-12 urtekoentzat argitaratutako guztia dugu. Gauza da euskaraz Haur eta Gazte Literaturan ez dela kasik deus ekoizten.

Charo: Eta gero euskarara itzultzen den gehiena gazteleraz duela bi urte argitaratua dago, eta orduan euskaraz dagoelako erosten duzu; baina, modu horretan, liburu bera bi hizkuntzetan dugu.

Nik ere kontsulta liburuetan ikusten dut hutsunerik handiena.

Gero ipuinetan, poesian, albumetan bagoaz mantso-mantso.

Arantxa: Bai, baina albumetan berriz ere itzulpena da nagusi.

Behinola: Espurgorik egiten al duzue?

Charo: Bai, bai, inolako beldurrik gabe gainera.

Arantxa: Bai, bai. Aurten 7 urtetan egin ez dudana orain egiten ari naiz, inbentarioa egiten ari naiz.

Behinola: Eta nora doaz liburu horiek?

Arantxa: Nik mahai baten gainean jartzen ditut eta abisua ematen dut nahi duenak eraman ditzan. Lehen gaztelerazkoak Ipar Ameriketara eramaten ziren, baina, hain gaizki egon ohi direnez, lotsa ematen dizu inora bidaltzea ere. Euskarazkoak, berriz, hizkuntza dela-eta, ezin dituzu inora eraman.

Charo: Nik fitxak ikusten ditut eta 3 urtetan ez bada irakurri, orduan planteatzen diot neure buruari ea interesgarria den edo ez. Ea zergatik ez den irakurri... Azken batean, zertarako izan liburu bat irakurtzen ez dena, historia egiteko? Horretarako badira udal-liburutegiak, nire ustetan.

Arantxa: Gurean gertatzen dena da, akaso liburu batetik 8 ale aurkitzea, eta hori gertatzen da garai batean erosi zirelako irakurzaletasuna beste modu batean ulertzen zelako.

Behinola: Zein da zuen aktibitate izarra?

Arantxa: Nik denbora bitan banatzen dut: irakurzaletasuna eta «*formación de usuario*» deritzona bultzatzen.

Nik hainbat ekintza informatika bidez egiten ditut, badugu¹ web gune bat eta hor badugu liburutegi birtual bat nik sortutakoa, guk ditugun liburuak kontutan hartuz. Adibidez, entziklopediak erabiltzeko «altxor uhartea» jolasa egiten dugu, bertan hainbat galdera daude entziklopedian bilatu behar dituztenak.

Gero liburu baten atalak zeintzuk diren jakiteko badugu unitate didaktiko bat internetez egiten duguna, 5. eta 6. mailakoentzat expreski sortua.



1. eta 2. mailakoekin Jonasen –Aizkorri-bildumako liburuak erabiltzen ditut. Lehenengo, ematen dizkiet azalak izenbururik gabe, gero atzeko aldea ematen diet laburpenarekin, ondoren izenburuak ematen dizkiet eta orduan 3 zatiak lotzen joan behar dute.

2. mailan ere bai «Eta zer?» bilduma erabili dugu. Arazoak sailkatzen ditugu: fisikoak, emozionalak... Gero idazleen izenak ezagutu eta bi ilustratzaileen izenak ikasten ditugu eta beraien lanak bereiztu, zeintzuk egin dituen Mikelek eta zeintzuk Jokinek esate batera, eta asmatu behar dute. Aldi berean ikusten ditugu beraiek ilustratutako beste liburu batzuk. Gero liburuak irakurtzen dizkiet, ondoren beraiek berea idatzi behar dute kezkatzen zaien zerbait adieraziz.

Lan horiek liburutegian gordetzen dira. Batzuetan gauza oso gogorak sortzen dituzte, adibidez: «Nik nire anaia hil nahi dut, eta zer?». Baina honek bidea ematen digu ezkutuan egon daitezkeen arazoak lantzeko aukera.

3. eta 4. mailan Patxi Zubizarretak idatzitako *Pantaleon Badoa* liburua landu dugu. 3. mailakoek entzun ondoren asmatu behar zuten izenburua, edo bukaera eman, edo izenburuarekin akrostiko bat sortu istorioa kontatuz, edo...

6. mailakoei erderaz irakurri diet eta testua fotokopiatua eman diet hitz batzuk kenduta eta beraiek jarri behar zuten hitz hori, edo bi hitzen artean aukeratu behar zuten, edo...

Charo: Nik urtez urtez gauza ezberdinak egiten ditut. Guk urtean zehar badugu aste bat

literaturari eskainia. Irailetik hasten gara diseinatzen. Bertan idazleak etorriko dira, ipuin kontalariak, ilustratzaileak... Gero irakur maratoia ospatzen dugu. Txikienak ipuinetako pertsonaiaz mozorratzen dira...

Arantxa: Nik ere normalean ez ditut aktibitateak errepikatzen, liburuen arabera aktibitateak diseinatzen ditut.

Ixiar: Gurean gela barruko dinamika da gehien bat, ipuin bat aukeratzen da eta tutoreak horren inguruan prestatzen ditu aktibitateak.

Behinola: Zer ez zenukete inoiz egingo?

Arantxa: Bada garai bateko ariketa tipiko horiek: aditzak azpimarratu, edo guztiok liburu berdina irakurri. Gero iritziak ematea asko kostatzen zaie, orduan batzuetan marrazkien bidez ematen dituzte.

Charo: Gureei ere asko kostatzen zitzairen iritziak ematea eta erabaki genuen eredu estandar batzuk ematea. Hori erabilia sormena piztu zitzairen... eta nola gainera!

Behinola: Eskerrik asko hiruroi eta liburutegietan elkar ikusiko dugu.

1. www.ikasbida.net/eusk/autokmendua/zerbitzuak/liburutegiak/kal
www.ikasbider.net/kalipontxi/index.html

